



Jaiak  Baiona

Bestak hasi, xuri-gorritz



Besten hasieraren ondotik, xuri-gorritzko uhin batek hartu du Baiona eta jai giroa nagusitu da.  BOB EDMÉ

bixente vrignon

XURI-GORRIZKO uhin batek hartu du herenegun Baionako Herriko Etxeko plaza, irekitze ofizialerako. Gaueko hamarretan xuxen-xuxen, jendetzak kontatu ditu, «bat, bi, hiru...» eta hamar arte, ezkiletako hamar kolpeak, bestaren hasieraren seinale gisa. Izugarriko oihi batek egin dio ongi etorria hamargarren ezkila kolpearri, eta bestariak hasi dira dantzan eta kantuz.

Lehenagotik, 09:30etatik, gomitat hasi ziren sartzen Herriko Etxeko ohorezko salan. Han bildu ziren Baionako zinegotzi guziak, diputatu eta kontseilariak, prefetak eta prentsa.

Bertsolaritza

Beste urteetan bezala, aurten ere irekitzea —eta beste bestetako ekitaldi ofizial guziak, funtsean— frantsesez eginga izan da hastapenetik bukaera arte, baina aurten euskara pittin bat sartu da, Andoni Egaña bertsolari zarautzarraren esku. Seguraski horrelako ekitaldi ofizial batean izan diren euskarazko lehen hitzak hauxek izan dira: «Zer ikuskizun atorrek xuri eta mokanes gorriak, zuen festetan opa dizuete umore izugarria. Aldi berean euskarak izan dezala bere neurria. Gora Baiona egin nahi nuke lehenbiziko aldarria ta gora Euskal Herria».

Euskal Herriko bertsolaritza-

ko txapeldunak bukatu ondoren, gomitat anitz aurkeztuak izan dira baionesei besten irekitzeko. Herriko Etxeko aurkeztalea hasi da «Miss Cote Basque» presentatuz eta desiatuz «Miss France» bihur dadin. Hala ere, arrakasta handiagoa ukan dute haren ondotik jendetzari aurkeztu zaizkion herriko kirolariak, besta horien babesteko.

Era horretan, balkoitik ageri dira Laurent Daguere, Aviron Bayonnais futbol taldeko kapitaina, haren taldea maila bat igoko baita aurten, Societe Nautiqueko neska arraunlariak, aurten Frantziako txapeldunak izan baitira, eta, azkenean, Emmanuelle Joly, Frantziako surf txapelduna.

Arazoak

Gehientzat bestak umore onean hasi badira ere, arazoak izan dira atzo, batez ere udalaren eta zaldiko-maldikoen jabeen artean. Horregatik, batzuek plaza bat okupatu dute Herriko Etxearen ondoan eta beren tresnak muntatu dituzte, nahiz eta Herriko Etxeak ukatu zien parte hartzea besta horietan. «Ibilkari andana batek, baimenik gabe eta ilegaltasunean, herriko terreno batzuk okupatu ditu azken egun hauetan», erran zuen atzo Herriko Etxeak ageri baten bidez: «Alta, aspaldidanik negoziatu genuen haiekin nork eta non hartuko zuen parte gure festetan».

Barraken jabeen arabera, alta, Baionak biziki toki gutxi eskaintzen du beren ofizioa egiteko, eta horregatik egin dute ekintza hori, okupatuz plaza bat. Hala eta guziz ere, tresna gehienak ez dira erabiltzen ahal, auzapezak debekatu baitu haien erabiltzea «lanjerosak» direlako bere iduriko.

Bestalde, hiru istripu gertatu dira Baionan atzo goizean goizik, eta, ondorioz, pertsona batzuk zauritu dira. Suhiltzaileak, berriz, 50 aldiz baino gehiago atera dira Baionako karriketara laguntza eskaintzeko, baina, zorionez, kasu larririk ez da izan.

Besten hasierarekin, martxan

egitaraua

Agorrilak 7, ostirala

08:00: Gaitero, txistu eta gaita diana.

10:00: Zigante eta Leon erregearen gortearen desfilea izanen dugu Baionako karriketan.

11:00: Orai-Bat-eko zigantean kabalkada, Baionako haurren danborrada karriketan. Ondoren, Askatasunaren plazan, euskal dantzak izanen ditugu Erro Bat taldearekin.

12:00: Herriko Etxean: Leon erregearen iratzartzea.

11:30: Ordu horretan hasi eta arratsaldeko 19:00etara bitarte, Caradoc jauregiaren parkean besta giroa izanen dugu. Helduendako bazkaria eta abesbatzak izanen ditugu tarte horretan giroa alaitzen.

17:00: Paul Bert plazan, behi lasterketa.

19:00: Kontzertu aperitifia izanen dugu 20:00ak bitartean. Dominique Gerard taldearen eskutik.


19:00: Montaut plazan euskal dantza nagusituko da: Dantzazpi, Mutxiko eta beste euskal dantza anitz izanen ditugu.

20:00: Montaut plazan bertan, bestak aurrera jarraituko du. Baionako ikastolek antolatutako, Baionan Kantuz euskal ohiturazko kantuak izanen ditugu.

22:00: Pau Bert plazan, arratsaldean bezala, behi lasterketak izango ditugu karrikan bertan.

22:00: Horren guziaren ondotik, izango da bertzerik ere. Izan ere, goizeko 03:00ak arte dantzaldiak izanen ditugu eta.

ezarriak izan dira ondoko zerbitzu guziak ere. Era horretan, herriak eskaintzen duen kanpalekuak atek zabaltu ditu atzo, eta bete izan da barda. STAB autobusen sozietatea, berriz, gaueko zerbitzu bat berritu du aurten ere. Horri esker, autobusak izanen dira gau osoan, eta trafikoa bakarrik moztua izanen da goizeko 05:00ak eta 06:00ak artean. Autobus horien hartzeko tarifa bakar bat izanen da, 10 liberakoa (250 pezeta), edozein tokitarat joateko. Dena dela, giroa bikaina izan da, eta, Herriko Etxekoaren ustean, «gero eta gertakizun gutiago dira gure bestetan».


Euskalduna, Ostaturia
61, Pannecau karrika
64100 BAIONA • 59 59 28 02

Beti Brankan
Ostatua
49, Pannecau karrika 64100 BAIONA

Txi Txaki
O S T A T U A
38, Tonneliers karrika - 64100 BAIONA TTIKIA - Tel.: 05.59.59.76.09